

OSAGAI ANITZEKO AFERESI-EMATEA

Zer da osagai anitzeko aferesia?

Aferesi bidezko odol-osagaien ematea mediku metodo bat da, eta honen bidez odolaren osagai bat edo batzuk ateratzen dira: plaketak, plasma, edota globulu gorriak. Soilik plasma ateratzen bada, plasmaferesiaz ari gara hitz egiten; soilik plaketak ateratzen badira, plaketoferesiaz; eta konbinazio bat ateratzen bada, osagai anitzeko aferesiaz ari gara. Prozedura hau da: ziztada bat eginez, tutu eta poltsa esterilen sistema bat jarzen da, zirkuitu itxi bat sortuz zain baten eta aferesi aparatua artean; hortik odolaren zati txiki batek zirkulatuko du, 150 cc inguruk. Zentrifugazio eta filtrazio bidez, aparatua bereizi egiten ditu modu automatizatuan definitutako osagaiak, eta organismoari itzuli egiten dizkio odolaren gainerako osagaiak, soluzio antikoagulaziale kopuru txiki batzuekin batera. Prozedura zein den, makina nolakoa den, eta lortu nahi den osagai kopurua zenbatekoa den, iraupena desberdina izango da. Horrela, osagai anitzeko aferesi batek 60 eta 90 minutu bitartean irauten du.

Segurua al da aferesi-ematea?

Bai. Ohiko odol-ematea bezain emate segurua da. Pertsonal kualifikatu eta eskarmentudunak zaintzen du beti prozedura osoa. 30 urte baino gehiago dira halako ematea egiten dela mundu osoan.

Prozeduraren ondorioz, plaketa kopurua aldi batean jaitsi egin daiteke, baina beti maila seguru batean, eta ohiko mailara itzultzen da oso denbora laburrean. Horri esker, plaketematea maizago egin daiteke ohiko odol-ematea baino.

Zergatik da beharrezkoa osagai anitzeko aferesia?

Odoleko hainbat osagai lortzeko aukera ematen due-

duelako, emaile bakar baten emanaldi bakar batean, transfusio dosi batera doitutako kopuruan. Horrela, esaterako, plaketen guztizko dosi bat lortzen da, eta, ohiko odol-emateen bidez dosi hori bera lortzeko, 5 zati batzea beharrezkoa da.

Plaketan iraugitze epea 5 egunekoa delako, eta beti bermatu egin behar dugulako plaketak eskuragarri daudela horien beharrean dauden pazienteentzat (transplanteak, minbizia...)

Batzuetan bereziki gaixo jakin batzuentzat bateragarri diren plaketak eskura izan behar direlako.

Zein dira osagai anitzeko aferesi emate honetarako bete behar diren baldintzak?

Odola emateko bete beharreko baldintza berberak; baina, gainera, beharrezkoa da:

Denbora gehiago izatea

Halako emate bat egin aurreko astean aspirina edo antiinflamatorioak ez hartzea.

Zenbat aldiz eman daiteke odola?


Ohiko odol-ematea baino maizago eman daiteke, baina, praktikan, gure politika hiru hilean behin ematea da, eta beti era programatuan, emailearekin AURRETIKO HITZORDUA adostuta.

Nola egin aferesi-emaile?

900 303 404 telefonora deituta, edo zuzenean gure zentroetako batera joanda; bertan, informazio zabala goa emango dizugu.

AFF4001F

OSAGAI ANITZEKO AFERESI emaileak



*Urrats bat
Aurrerago*

INFORMAZIO INTERESGARRIA

Donostia: 943 455411 / 943 455622
aferesis.c.v.t.t.h.donosti@osakidetza.net

Vitoria-Gasteiz: 945 007878 / 945 007627
donantes.sangrealava@osakidetza.net

Galdakao: 94 4007157 / 900 303 404
aferesis.cvtthgaldakao@osakidetza.net

 900.303.404
www.donantesdesangre.com